



Ohar lexikografikoak P. Urkizuren "Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)"-z

Charles Videgain

► **To cite this version:**

Charles Videgain. Ohar lexikografikoak P. Urkizuren "Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)"-z. pp.321-327, 2004. <artxibo-00000040>

HAL Id: artxibo-00000040

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000040>

Submitted on 2 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Ohar lexikografikoak

P. Urkizuren

Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)-z

Xarles VIDEGAIN
UPPA
IKER 5478 CNRS

Biga bostetan erakutsi du Biblioteketan lo dauden dokumentu ezezagunen argitara emateko duen ganorea Patri Urkizuk eta 1987. urtean euskaldungoari eskeini zion Baionako Euskal Museoan zegoen esku-idatzi baten testua. Manuel de la Sota-ren fondoan aurkitu zuen erdarazko titulu hau ekartzen zuen bilduma : *Recueil de quelques pièces de vers / anciens et nouveaux (1798)*. Xehetasun gehiago nahi duenak joko du beraz argitaralpen hortara.

Duela urte zombait, liburu hau euskarazko CAPES azterketako programan izanki, lexikoaren inguruan mugatuz puntu batzu ilunik gelditzen zirela ohartu baikinen, xehetasun berri zombaiten ematera entseaturako gara artikulu honetan. Bere liburuan hiztegi bat eskaintzen zuen Urkizuk 191-216 orrialdeetan, eta hiru informazio ematen zuen sarrera bakoitzeko : lehenik euskarazko hitza (dokumentuko ortografiaren arabera, aldaketa guti zombait salbu), gero frantsesezko erranahia, eta hirugarrenekorik gaztelerazko erranahia.

Gure lana ez da exhaustiboa baina hiztegi hartan ageri diren arazo batzu aipatu nahi izan ditugu. Alde batetik, frantsesez diren huts tipografikoak altxatu ditugu, baita ere frantsesezko eta gaztelerazko baliokideen arteko kontresanak, bestetik, itxasoari buruzko eta modari buruzko hitzen erranahi berri batzu ematen ditugu (heien artean izen amankomun bilakatu izen berezi zombait : *greka, fontantxa, xantala*), azkenik beste hitz batzu zuzendu nahi izan ditugu (*erlaxa, papaio, khorrokan, purriña, ttinpla*).

ANTAPARA, bief, canal de molino, 143. Egia da *Orotariko Euskal Hiztegiak* (hemendik aintzina OEH) adiera hori ematen duela baina 'digue' ere bai (zentzu figuratua izan ditekela dio OEH-k). Duvoisinek eman adiera aipatzen du OEH-k : 'digue, môle, jetée' eta adiera horrekin glosa ditekela *antapara* hitza. Baina erreferentea edo adierazia mendia dela dio testuak eta ez uste izaiteko zen bezala, frantsesez 'tombolo' deitzen den lurrezko edo harrokozko adarra. Mendiak beraz, 'digue' baten zeregina egiten badu, 'protection', 'abri' hitzez ere glosa ditekela *antapara* hitza, kontuan hartzen dugularik erranahi honetatik ez dagoela urrun gazt. *antipara*.

APASTA, boëtte, raba, 185. 'Appât' ere eman zitekeen, hots hiperonimoa. Gazt. 'raba'-ri fr. 'rogue' dagokio, apasta berezia baita, gaur ere Donibane Lohitzunen *arraba* deitzen dena.

ARMATU, armer, armer, 103. Adiera berezia dela eman zitekeen, fr. 'forcir' alegia.

ARRASATU, tailler en ras, arrasar, 99. Hobe 'raser'.

ARROLACA, trebuchent, en zig-zag, 98. 'En trébuchant' da ; fr. eta gazt. bi hitzek ez dute gauza bera adierazten.

ARRUTA, route, ruta, 157. Adiera teknikoa dela gehi zitekeen.

ACUCRE. AÇUCRE behar da.

BABAÇUÇA, grêle, pedrisco. 'Pedrisco' hori 'granizo grueso' da Molineren arabera eta aldiz Euskal Herriko leku hanitzetan *babazuza harria* baino xeheago dela iduri luke. Hiztegiek ez dute argi handirik ematen eta Urkizuri ezin zaio xehetasun gehiagorik galdatu. Aukeran 'grésil, granizo' eman genezake, 'grésil' 'grêle' baino xeheago delakoan.

BENTURATZEN, 94, ez du glosatzen. 'Aventurer', 'mettre en jeu', 'risquer' eman zitekeen, gogoan hartuz 'aventure' hitza erabilia izan dela itsas-bidaiaetako segurantzamota baten izendatzeko (cf. 'prêt à la grosse aventure').

BISLAIA hitza ez du glosatzen, 122. Egia erran, ez dakigu zer erran nahi duen eta originala kontsultatu behar da. OEH-k ez dakar.

BIZARKI hitza ez du glosatzen. Sarrera behar luke. Lhandek ematen duen *bizarro*, 'généreux' gogoan harturik, 'libérement, généreusement' glosa ditekete.

BURIJESA, bourgeois, burgués, 106. Zehazkiago 'armateur'.

BUTATU, jeter, arrojar, 137. Bainan hemen ez da adiera egokia pilota jokuaz mintzatzen den ber. Iparraldean eta frantsesez 'buter' erraiten da edo bestenez 'engager', 'mettre la balle en jeu'. Zernahi gisaz, testuak 'butan' dakar eta ez 'butatu'.

BUTARI, jeteur, lanzador, 137. Goiko lerroan erraiten dugunaren arabera, 'buteur' emaita hobe da.

DESGOGARA, contre le gré, con desagrado, 135. Hobe 'de mauvais gré', 'à contrecœur'.

ECHUATU, échouer, fracasar, 107. Bainan 'encallar' erran nahi du testuak : *vaisseau batec malhurski costan du echuatu*. Ez da edozoin 'fracaso'. Gogoan har hitz hori ez duela begi onez ikusten egileak, *frantsescara* baitzaio.

ERLACHA, mur, muro, 143. Urkizuk hitz hori lotzen du *erlax* sarrerarekin. Ez da dudarik fr. 'relâche' ('lieu où un navire fait escale' edo 'action de relâcher') duela iturburu eta horrela egin du ere OEH-k, hain zuzen hemengo pasartea aipatuz.

ERREFERA, reponse ('réponse' behar du) *à la balle, devolución de la pelota, 137.* Iparraldean, frantseses 'refil' hitza baliatzen da pilota jokoaz den bezenbatean ('renvoi' hitza ere onar ditekete). 'Réplique' edo 'riposte' erabiltzen ahal da zentzu metaforikoan.

ERREPIRA, cours, curso, 116. 'Cours d'eau', 'rivière' behar da. Egia da ez dela 'rive'.

ESTOFA, éttofe, estofa, 127 ; étoffe behar da.

FRANTSESCARA, gallicisme, galicismo, 108. Bainan hemen idazleak deitoratzen dituen erdarakadak ez ote dira 'gallicisme' baino piesago ?

FUNTANCHA, fontanche, lazo de tocado antiguo de señora, 173. Guziz zuzen dabil Urkizu erranahiaren aldetik eta fr. 'fontanges' ezarri behar da. TLF-k horrela dio : «Nœud de rubans porté aux XVIIe et XVIIIe siècles par les femmes un peu au dessus du front pour retenir leurs cheveux [...] Du nom de la duchesse de Fontanges (1661-1681), maîtresse de Louis XIV (1679-1680), qui lança la mode de cette coiffure en nouant, au moyen d'un ruban, ses cheveux dérangés par le vent lors d'une partie de chasse. Cette coiffure plut au roi et fut imitée par les dames de la cour».

GABIA, gabie, gavia, 97. Oraiko irakurleak hobeki ezagutzen duen hitza 'hune' da eta gehi zitekeen.

GAMBARAÇAIN, gardien de chambre, ayuda de cámara, 112. Hobe 'chambrière'.

GANTÇUTU, graisser, engordar, 123. Hobe 'graisser, oindre' eta 'untar', ez 'engordar'. Gantza fr. 'panne' da, erran nahi baita zehazki urdearen parte urinzua (hartarik ateratzen den uringatzgabea fr. 'saindoux' da) nahiz 'panne' hitz hori ez duten aipatzen ez Lhandek, ez OEH-k.

GARNIÇON, garde, guarnición. 'Garrison' behar da.

GARAMBORE, instrument musicale, garambaina, 150. 'Instrument musical' behar da. Hitza ez dugu ezagutzen.

GARRAIATU, charrier, acarrear, 107. Bai bainan gaurko irakurlearentzat 'charroyer', 'transporter' ere hobeki ulertzen da.

GOARDACORSA, garde corse, guarda corsa, 158. Ezin da hori izan. Originala ikusi behar. Gaude ez ote den besterik gabe 'garde du corps', 'guarda-espalda'.

GRECA, 124 ez du glosatzen. Lhandek ematen dituen adierak, 'bégaiement' eta 'bègue' ez dira hemen egoki. Moda, jantzi eta edergailuetako alorreko hitza da eta fr. 'coiffure à la grecque' glosatu behar da. Bidenabar, Lhandek dakarren *greka* hitzaz xehetasun bat eman gabe ez nagoke ezen ez dut uste hitz horren adiera 'bègue' izan denik bakarrik. Baxenaparrean bildu dudanaren arabera, *greka* deitzen zen ahoskatzeko akatsa zuen jendea, hots /rr/ darkarkari anizkuna ematen ez zuen jendea, eta dardarkariaren ordezt frantsesetzko [R] 'grasseyé' ematen zuen jendea, non ikusten baitugu belaunaldi gutiren barnean *greka* bilakatu garela Iparraldeko euskaldun gehienak gaur ez baitezakegu [R] hortaz besterik egin euskaraz. Duela guti (bi belaunaldi beraz edo 60 urte hor nonbait) estigmatizatua zena kasik guziz nagusitu da oldar handiz.

ICUSCARI, vision, visión, 116. Hobe 'spectacle'.

KALENDABUXAK, 125, falta da. *Kalendabuxak* hitza zer den ez dugu zilatatu, bainan *kalenda* zer zitekeen bai. Fr. 'calandre' proposatzen dugu, eta '*greka*' bezala biloen emateko modu berezi baten izena da. TLF-k ematen dituen adieretan ez da ageri hemengo adiera. TLF-aren arabera 'calandre' xori baten izena (allauda mota bat) da, edo intsektu baten izena, edo otomobiletako burdinezko pieza bat, edo azkenik oihalaren edo paperaren lisatzeko tresna baten izena. Bainan 'la coiffe calandre' web-ean hatzeman dugu eta oraindik Antillesetan erabiltzen omen da.

CAMAINA, lit de paille, lecho de paja, 102. Hobe 'paillasse' edo 'couchette'.

KHORROKAN, en ronflant, roncando, 137. Kontestua kontuan harturik hanitzez

hobeki dator OEH-k ematen duen 'râle' adiera, edo 'être aux abois', metaforikoki. Testuak *khorrokan* hitza paraleloan ematen du *hill urren*, *hagonian*, eta *kandelan* lexiekin. Zentzu horretako *khorroka* hitza guziz ezaguna da gaur ere Baxenafarroan bederen eta erabiltzen da norbait *ttipi* delarik, erran nahi baita agonian sartua delarik, eta preseski hil aintzineko 'khorrokak' ematen dituelarik.

KOARTERA, 99. Gazt. 'cuartero : madero de dimensiones varias' badago bainan kontuan hartu behar da ez dela zur puska bakar batez ari testua : *Coartera dio eraman [itxasoak]* eta zuzenago iduritzen zaigu gazt. 'cuarter' proposatzea ondoko adiera honekin : 'compuesto o armazón de tablas con que se cierran las bocas de las escotillas, escotillones, cañoneras' (DLERAE). Fr. 'panneau d'écoutille' proposatzen dugu. Ikus adibidez Fournier 1667 : 'Escoutilles, sont grands panneaux, par lesquels on ouvre les ponts & Tillacs pour descendre ou tirer de grands fardeaux d'un vaisseau' edo ber liburuan : 'Escoutillon, est vne ouverture quarrée, qui est dans les escoutilles, par laquelle on sort, & deualle dans un vaisseau'. Berdin Du Guay-Trouin, 1740 : 'Escoutille. Ouverture ou trape par laquelle on descend entre les ponts, & la cale'.

CUCULDU, *s'engourdi*, *entumecido*, 126. Zernahi gisaz 'engourdi' behar liteke zuzenez bainan semantikaren aldetik hobeki heldu da OEH-k dakarren lehen adiera : 'desaparecer, esconderse, couvrir, se couvrir d'un voile, d'un manteau qui empêche d'être vu'. Alabainan testuak horrela dio : *Ethorri çayo dolua/ ordutik du mandelua,/ munduko legueac nahi baitu/ ibil dadin cuculdua*.

LUIETAN, 187, falta da. Fr. 'en louvoyant' eman behar da, hemen erranahi metaforikoan erabilia, erran nahi baita 'nahikatua den xedera xuxen joan gabe mila itzuli-mintzuli egitea'.

MANDELU, *moudre*, *mosca*, 126 : 'mouche' behar liteke bainan erranahiaren aldetik ez dugu uste zuzen den adiera hori 'mando-euli'-rik ez baita hemen ageri. Originala ikusi behar da bainan *manta*, *mantaleta*, *mantalina*, *manteleta* hitzen aldakiztat hartzen dugu hemengo *mandelu*, hots fr. 'mantelet'.

MASCARADA, 98 falta da. Zuberoko ikusgarriarekin ez du deus egitekorik, prefosta (etimologiaz kanpo). Hitz hortaz *Französische Etymologische Wörterbüch-ek* argi haboro ematen digu. Italiarazko *maschera* oinarritzat harturik (bainan latinez *masca* hitzak jadanik 'sorgin', 'belagile' edo 'inguma' erran nahi zuen). Etimoi hartatik atera diren formak (izen eta eratorri guziak) gaingiroki sailka ditezke semantikoki. Alde batetik begitartea kukutzen duen 'maska' da. Izaiten ahal da ere, erran bezala, 'sorgin' bat, 'prostituta' bat, 'emazteki bihurri' bat, 'ametsgaizto' bat (ametsgaiztoaren eta ingumaren arteko lotura ezaguna da), 'zorigaizto', 'jende faltsu', 'mamu' etabar. OEH-k *maska* ematen du adiera hoietarik zorbait aipatuz. Bestalde 'zikindu', 'theiutu' erran nahi duen aditza badago (ikus *mazkildu* OEH-n, eta iparraldeko frantsesez egun ere erabiltzen den 'mâcher : les eaux sont mâchées, 'zikin', 'thürbüts' direlakoan), gero, lerraketaz, 'ilun' eta 'beltz' erran nahi duen adjetiboa badago ere (ikus euskaraz *mazkaro*, *maskaro* ere buruan, muturrean tona iluna duen kabale batez, biarnesez *mazkar*), gero 'lan gaiztoa' denotatzen ahal du (*matxuratu* ez ote da hortik jiten ?), eta azkenik 'disimulatu', 'aspertu', 'kukutu' adieraz dezake. Alor teknikoetan ez da ezezaguna eta Von Wartburgen bilduma harrigarriak preseski itsas-munduari buruzko adiera bereziak ematen ditu. Erreferentziak zehatz mehatz nahi dituenak jo beza FEW-ra, 'masque' hitzak bospasei adiera baitauka itsasuntziei buruz ('bela' baten izena da besteak beste). Horra zer dioen 'masquer' aditzaz : 'frapper par devant, arrêter [untzi bat], en

parlant du vent qui saute'. Beste adiera hau ere badago : 'Masquer : avoir ses voiles prises à contre par suite d'une saute de vent'. Gehiago dena, gure euskarazko dokumentuko testinguruan ongi heldu diren beste adierak badaude, hain zuzen aroari buruz emanak, 'mascarade' hitzaz : 'Saint. [Saintonge erran nahi duke] gros nuage, avant-coureur de la pluie' edo Saintonge-n ere : 'Sorte de tempête avec grêle'. Okzitanez 'masco' hitza Béziers-en bildua izan da : 'nuage qui s'élève de la mer, et qui annonce la pluie ou l'orage'. 'Mascore' hitza bildua izan da adiera bertsuan ; 'h.lim [haut-limousin] : vent très fort'. Gure testuan dagoen *maskarada* hitza ez dabil urrun semantikaren aldetik. Dударик gabe euskal idazleak *itsasoak maskarada* pasartean horrelako zerbait adierazi nahi du : 'tanpez gertatzen den aro-aldaketa handi baten ondotik, sorpresaz bezala, heldu den aize edo eta harri erauntsi bortitza, unziairen ibilera net erasotzen duena', antropomorfismo inkau bat dela medio.

MUNDUTARRA, 184 falta da. Erlisionean duen adiera proposatzen dugu, fr. 'mondain'.

NASCA, *suffissant, suficiente, 152*. 'Suffisant' behar du bainan originala ikusi gabe ere, dudazko forma dela susmatzen dugu.

OÇAR, *chien, perro, 120*. Hobe 'mâtin'.

PAPAIIO, *bou, duende, 103*. Dударик gabe 'perroquet' ezarri behar da ; 'voile haute et carrée établie au-dessus des huniers. Il y a un grand perroquet au-dessus du grand hunier et un petit perroquet au dessus du petit hunier (TLF)'. Ikus ere Consolin 1859 : 'Voile carrée qui établit au-dessus des huniers. Celui du grand mât s'appelle *grand perroquet* ; celui du mât de misaine, *petit perroquet* ; celui d'artimon s'appelle *perruche*'. Ez du deus egitekorik pertsonai mitiko edo izugarri batekin. Jakina da frantsesez 'perroquet' hitzak baztertu dituela *papaio*-ari hurbil diren forma zaharrak, 'papegai' eta 'papegaut'.

PHEÇA ez da glosatzen, 137. 'Pièce (d'artillerie), canon'.

PONTU, *rime, rima, 115*. Testuak ez du hori adierazten, hobe 'vers' emaita.

PURRIÑA, *odeur fétide, hedor, 105*. Ez da hori. Testuingurua fr 'coaltar' edo horrelako zerbait proposa genezake, hots istupak bezala untziko taulen arteko guneak betetzen dituen ekai baten izena. Deus ez du ikustekorik urrin hitzarekin, are gutiago fr. 'purin' lexiarekin.

REALQUI, *royalment, realmente, 161*. 'Royalement'.

SEGO, 123 falta da. 'Suif' da izatez, beste nunbait *bilgor* deitzen dena (BN-n adibidez).

SEREINA, *serein, sereno*. Izena dela zehaztea ('aratseko ihintza') ongi liteke. Gaur ere komunzki erabiltzen den hitza da, *ze(r)ena* forman.

SOCHORRI, *secourir, socorrer, 121*. 'Secours' : izena da.

SINTSA, 174, falta da. Lhandek dioena : 'dévot acariâtre, béguine' ongi doakio.

TREBES, *travers, través, 99*. Erran nahi teknikoa duela gehi diteke, itsasuntziari gertatzen zaion ezbeharretarik bat alegia.

TTIMPLA, *bandelette, ornement volant de la coiffure des femmes, tombladera, 101*. Askoz egokiago da Lhandek ematen duen bigarren adiera ; 'girouette' testua ongi ulertzen

badugu : *burua du arin, ttimpla baten berdin/ ezquilla dorrecotçat, haïce seiñaleçat*. Badakigu tresna horrek preseski buru arina edo nortasunik eza konotatzen duela.

CHAMPELA, crinière, melena, 128. Hobe 'crin'. Baina *zurda* hitza ere testuak ematen baitu ondo-ondoan, hobe liteke 'crin' ematea *zurda*-ren ordain gisa, eta 'pite' *champela*-ren ordaintzat.

CHANTALAK, chanteuse, cantora, 173. Ez dugu uste zuzena den hori eta beste hipotesi bat proposatzen dugu. Ez ote dira 'Visitation' deitu kongregazioko serorak *xantal* gisa ezagutuak izan euskaraz, kongregazio horren sortzaileak François de Sales et Jeanne de Chantal sailduak direlarik, azken emazte honek bere izena eman zielarik kongregazioko serorei ? Badu kolorerik hala den.

CHORROINTTO, petit quenouillée de lin, rueca pequeña, 123. 'Petite' behar da. Bestalde fr. eta gazt. ez dira bat etortzen eta uste izateko xorrointto izari bat dela eta ez tresna bat.

ÇAKHUTTO, petit bourse, bolsito, 182. 'Petite bourse'.

CEPO, prison, carcel. Hobe 'cep', 'chaîne', 'les fers aux pieds'.

Ondotik ematen ditugu aditz-formetan zuzenketa hartze dituzten hitzak.

BALEGO, s'il restât, si él estuviera. 'S'il restait' eman behar.

BETÇO, qu'il lui les ait, se los haya él. 'Qu'il les lui ait' ezar.

DARITZ, ils manent, manan. 'Ils coulent' ezar.

DEIÑO, tant qu'il soit, mientras es. 'Tant qu'il est' ezar.

DEMOGUN, donons-à lui, concedámosle. 'Donnons-le lui'.

DEÇADANTÇAT, à afin de que j'ai, para que yo haya. 'Afin que j'aie'.

DEÇATEN, qu'ils laient, que lo hayan. 'Qu'ils l'aient'.

ZUQUEEN, il pourrait l'avoir, lo podría haber. Hobe 'il pouvait l'avoir'.

Gure zuzenketek ez dute estali nahi P. Urkizuk argitaratu duen obraren interesa, urrundik ere. Gune ilunak badauzka oraino bertso horietan ageri zaigun lexikoak eta beste ikerketa zonbaiten beharrean gelditzen da.

Adibidez *ezpartza* hitza, 105 orrialdean, behar luke hiztegi teknikoaren argia, lemaren eta lemanaren parteak nola deitzen ziren jakiteko bederen. Frantsesez ezagunak balinbadira 'gouvernail' lexiaren meronimoak, hala nola 'aiguillot', 'barre', 'étambot', 'jemelot', 'mèche', 'piton de cervelle', 'sauvegarde', 'savate', 'semelle', 'talon', 'trou de jaumière' aldiz euskaraz gauzak ez dira hain zehatz eta *espartza* brankako parte hoietarik bat izan behar litekeela edo eta lema bat hausten zeneko haren ordez ezartzen zen behinbehineko tramankuluaren parte bat izan litekeela uste badugu ere ez dugu hori zilatatu, alderdi entziklopedikoari doakion alorra gutiegiz arakatuz. Halere, araz, irakurlea lagunduko dute hona ekarri ditugun oharrek.